




Gizarte Hezkuntza

3. MODULUAREN GIDA

HEZKUNTZA PROZESUEN
OINARRIAK



2024-2025

AURKIBIDEA

| | |
|--|-----------|
| AURKEZPENA..... | 3 |
| MODULUAREN GAITASUNAKETA IKASKETA EMAITZAK..... | 3 |
| MODULUAREN EGITURA..... | 5 |
| MODULUAREN DIZIPLINARTEKO JARDUERA (MDJ)..... | 5 |
| METODOLOGIA: ARAZOETAN OINARRITUTAKO IKASKUNTZA (AOI/PBL)..... | 6 |
| ZER URRATS EMANGO DITUGU IKASKETA PROZESU HONETAN?..... | 6 |
| MDJREN EBALUAZIOA (PROZESUA, ADIERAZLEAK, IRIZPIDEAK ETA NOTA) | 8 |
| IRAKASGAIEN ZERRENTA: BAKOITZAREN KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK ETA EDUKIAK | 10 |
| WEB ORRIETARA ETA ALDIZKARIETARA ESTEKAK..... | 14 |

AURKEZPENA

Gizarte Hezkuntzako graduaren 3. moduluaren (“Hezkuntza prozesuen oinarriak”) helburua ikasleei hezkuntza prozesuen egitura, esanahia eta horien barneko loturak ulertaraztea da, esparru formaletan nahiz ez formaletan. Horretarako, prozesuak aniztasun, zabaltasun eta diziplinartekotasun handiko ikuspegitik aztertzen ditu.

Modulu hau IKD3 hezkuntza-eredu propioaren barruan kokatzen da, egungo orientazio pedagogikoekin eta Europako politikekin bat datorrena. Ikd3 ikaskuntza, ikerkuntza eta iraunkortasunarekin dauzka oinarri.

Prozesu hauen ikasketa, mikro mailetatik (ikasgela, ekipoak, banakako esku-hartzeak, tutoretzak, talde txikitik egindako lan saioak) makro mailetarainokoa izango da (zerbitzuak eta erakundeak). Horrez gain, gizarte eta hezkuntza bazterketa egoerak gainditzen dituzten ikuspegiak barne hartuko ditu, eta inor baztertzen ez duten kulturak eta praktikak sustatuko ditu. Modulu hau osatzen duten bost irakasgaiari esker, ikasleek honako gaitasun hauek eskuratuko dituzte:

“Didaktika Orokorra” irakasgaiak irakaskuntza eta ikasketa prozesuak ezagutzen eta aztertzen lagunduko die, baita horiek antolatzekeko modu zehatzak ere; “Hezkuntza eta Gizarte Orientazioa” irakasgaiari esker, eragile ezberdinetara bideratutako hainbat baliabide eta tresna eskuratuko dituzte, irakaskuntza eta ikasketa prozesuen lagungarri gisa; “Hezkuntzaren Psikologia” irakasgaiak pertsonen irakaskuntza-ikasketa prozesuen ondorio gisa jasaten dituzten portaera aldaketak aztertzen ditu, eta pertsona horiengan eragin handiena duten aldagai psikologikoak agerian uzten ditu; “Prozesuen, Zerbitzuen eta Hezkuntza Erakundeen Antolakuntza eta Kudeaketa” irakasgaiak hezkuntza erakundeen egitura alderdiak hobeto ezagutzeko aukera ematen die ikasleei, horietan gauzatzen diren hezkuntza prozesuak ahalbidetzeko; azkenik, “Gizarteratze eta Baztertze Prozesuak” irakasgaiaren helburua aurreko gai guztiak desberdintasun egoerak agerian uzten dituen testuinguru batean kokatzen ditu, eta gizarte ehundura kohesionatuagoak eta integratuagoak, giza garapenarekiko konprometituagoak, sortzen lagunduko duten ikuspegiak bilatzen ditu.

Modulu honen gaitasun orokorren eta zeharkakoen jakitea, orientazio kritikotik abiatutako hezkuntza arrazoibide bat eraikitzekeko helburua da. Horretarako, ikasleek benetako hezkuntza egoera edo arazo bati buruzko txosten bat idatzi eta ahoz defendatu beharko dute (Moduluaren Diziplinarteko Jarduera, MDJ).

MODULUAREN GAITASUNAK ETA IKASKETA EMAITZAK

Moduluaren konpetentziak IKD3 esparruan kokatutako ikuspegi batetik ulertzen dira. Halaber, moduluak Garapen Jasangarriko Helburuei (GJH) erantzuten die, hala nola GHJ3 osasuna eta ongizatea, GHJ4 kalitatezko hezkuntza eta GHJ5 genero-berdintasuna.

1. eta 2. moduluetan zehaztu genuen moduan, gaitasuntzat hartzen dugu “bizitza profesionaleko eta/edo pertsonaleko arazoak edo egoerak konpontzekeko egitura kognitibo, intelektual eta emozional batzuk mobilizatzen dituen ikasketa zehatzeta konplexua”. Ikasleek gaitasuna zenbateraino eskuratu duten ikusteko, ikasketa emaitzak beha daitezke. Inportantea iruditzen zaigu MDJ taldeen egitura irakasleek osatzea taldeko lana sustatzeko eta aniztasunean lan egiteko.

Hauek dira 3. moduluan lortu beharreko gaitasunak eta horien ikasketa

emaitzak:

GAITASUNAK


- 3G1 Hezkuntza prozesuetan parte hartzen eta eragiten duten pertsonak, taldeak, testuinguruak eta hezkuntza erakundeak aztertzea, ondoren ezagutza teorikoaren esparruan interpretatzeko (1. GO¹).
- 3G2 Testuinguru formaletako eta ez formaletako irakaskuntza eta ikasketa prozesuak aztertzea, pertsona oro barne hartzen dituzten eta desberdintasunak alde batera uzten dituzten ikuspegiak erabiliz (1. GO, 2. GO).
- 3G3 Hezkuntza eta gizarte orientaziorako prozesuen kasu teorikoak eta praktikoak eta oinarriko alderdiak deskribatzea (1. GO, 3. GO, 4. GO).
- 3G4 Gizarte eta hezkuntza prozesuen oinarri psikologikoak eta psikopedagogikoak zehaztea (1. GO, 3. GO).
- 3G5 Hezkuntza erakundeen egitura eta dinamika interpretatzea, baita giza garapenerako funtsezkoak diren hezkuntza prozesuetan duten eragina ere (1. GO, 4. GO).
- *3G6 Era askotako entzuleei, ahoz adieraztea, ideiak, argumentuak, arazoak eta ebazpenak; entzule desberdinei hizkuntza egokituz
- *3G7 Dokumentu profesionalak idaztea testuinguru bakoitzak eskatzen duen egitararen arabera (CG9*).
- *3G8a Moduluko ekintzak betetzerakoan, jarrera positiboa agertzea (CG10*).
- *3G8b Talde lanerako gaitasuna izatea garatutako dinamika eta prozesuaz kontzientzia hartuz. (CG10*).
- *3G9 Ikasleek garatu dezatela egoeren azterketa eta giza hezkuntzako esku-hartzea gako etikoaz eta lanbidearen deontologiaren baliaturik (CG5*).p

IKASKETA EMAITZAK

- A. Irakaskuntza eta ikasketa prozesuen osagai didaktikoak identifikatzea.
- B. Gizarte eta hezkuntza prozesuak sortzen eta kudeatzen laguntzen duten antolakuntza alderdiak zehaztea.
- C. Hezkuntza eta gizarte orientaziorako prozesua osatzen duten alderdiak identifikatzea.
- D. Gizarte eta hezkuntza prozesuetan eragina duten aldagai psikologikoen laburpen bat egitea.
- E. Bazterketarik gabe irizpideekin lan egitea gizarte eta hezkuntza prozesuetan.
- F. Genero alderdia kontuan hartuta lan egitea gizarte eta hezkuntza prozesuetan.
- G. Hezkuntza prozesu zehatz baten azterketa egitea, alderdi didaktikoak, psikologikoak, antolakuntzari dagozkionak, soziologikoak eta orientazioari dagozkionak kontuan hartuta.
- H. MDJ ahoz aurkeztea, taldearen barnean eta entzuleen aurrean jarrera egokia erakutsiz.

MODULUAREN EGITURA

Moduluaren egiturak aipatutako bost irakasgaiak eta MDJ (Moduluaren Diziplinar-teko Jarduera) gauzatzea barne hartzen du, honako grafiko honetan ikus daitekeen moduan:



MODULUAREN DIZIPLINARTEKO JARDUERA (MDJ)

MDJren helburua ikasleari oro har orientazio kritikoa izango duen hezkuntza arazoibide bat osatzeko beharrezko elementuak ematea da; zehatzago, ikasleek lan talde baten barnean benetako hezkuntza egoera edo arazo bati buruzko idatzizko txostena egin eta ahoz eta jendaurrean aurkeztu beharko dute.

3. moduluaren kasuan, aurreko ikasturtean 2. moduluan egin genuen bezala, Arazoetan Oinarritutako Ikasketa (AOI) metodologia erabili dugu. Metodologia horren xedea ikasleak aurrean duen zalantza edo arazoa diziplina arteko ikuspegi batetik begiratzea da. Benetako praktika profesionaletik ateratako arazoek egoera konplexu samar bat islatzen dute, eta ikasleek horri aurre egin behar diote, egoeraren analisi kritikoa eginda, informazioa bilatuta, hipotesiak osatuta, ikasketa prozesuari buruzko erabakiak hartuta eta arazoari erantzungo dioten argudioak eraikita. Halaber, 4 kasu desberdin barneratu dira non emakumeak protagonistak diren 5 GJHan fokoa jartzeko. Talde bakoitzak kasu bat garatuko du eta, defentsa egunean aurkeztuko dira.

MDJ-ren euskarri metodologikoa mintegia izango da. Mintegia bi edo hiru ikasle taldek (segun eta ikasleen kopurua zein den) eta irakasle batek osatuko dute. Irakaslearen zeregina irakaskuntza-ikasketa prozesua ahalbidetzea izango da.

MDJ nahitaezkoa da eta 5 ECTS-ko balio akademikoa du. Lehen lauhilekoan egiten da. Ikasleek bi orduko 6 saiotara bertaratu beharko dute, eta irakaskuntza egiturak

tutoretza saioak eta ikasleen lan autonomoa barne hartuko ditu.

Ikasturteko lehen astean, AOIren planteamendu metodologikoak landuko ditugu eta MDJn jarraitu beharreko planteamendu metodologikoa erabakiko dugu.

Metodologia: Arazoetan Oinarritutako Ikaskuntza (AOI/PBL)

Modulu honetan erabiltzen dugun metodologiaren oinarria irakasgai ezberdinetako edukien integrazioa da, eta egoeren bidezko ikasketa, arazoetan oinarritutakoa, erabiltzen dugu. Modu horretan, irakaskuntza-ikasketa prozesuan sartzen ditugu prozesu horretan modu kooperatiboan parte hartzen duten pertsona guztiak.

Mintegia osatzen duen ikasle taldea bideratzailearekin bilduko da, modulu honetako gaitasun espezifikoak eskuratzeko xedearekin aurrez hautatutako eta diseinatutako benetako arazo bat aztertzeke eta konpontzeko.

Arazoak ikasleak eguneroko bizitzarekin harremanetan jartzen ditu, eta zer suposizio diren beharrezkoak eta zergatik zehaztera behartzen ditu; horrez gain, zer informazio den garrantzitsua eta zergatik, eta arazoa konpontzeko beharrezko urratsak edo prozedurak ere definitu beharko dituzte.



Prozesu horretan, ikasleek hainbat urrats edo etapa igarotzen dituzte: arazoa identifikatu, prestakuntza beharrak hauteman, lanerako plan bat egin eta arazoa konpontzeko erabakiak hartu. Arazo jakin batek hainbat konponbide izan ditzake, beraz, garrantzitsuena ez da konponbide bakar bat aztertzea, hori lortzeko jarraitutako prozesua behatzea baizik.

MDJ hezkuntza praktikatik ateratako benetako arazo bat oinarritzat hartuta gauzatuko da.

Zer urrats emango ditugu ikasketa prozesu honetan?

HASIERAKO EZTABAIDA

- 1) *Arazoarekin zerikusia duten terminoak eta kontzeptuak ulertzea eta argitzea.*
 - a) Arazoa barne hartzen duen testuingurua banaka irakurtzea eta aztertzea.
 - b) Gainditu beharreko egoera modu orokorrean ulertzea eragozten diguten hutsuneak, kontzeptuak eta terminoak zehaztea eta taldean eztabaidatzea.
 - c) Aipatutako alderdi guztiak idatziz erregistratzea (zalantzak, argudioak, terminoak, etab.).
- 2) *Arazoaren muina identifikatzea eta definitzea, eta galderak egitea.*
 - a) Ikasleak arazoaren inguruan dituen lehen iritziak bakarka azaleratzea.
 - b) Taldeari jakinaraztea.
 - c) Arazoaren deskribapen txiki bat egitea; bertan, taldeak konpondu nahi duena diagnostikatu beharko du.
- 3) *Dagoeneko ezagutzen dituzten gaiari buruzko alderdi teorikoen eta esperientzian oinarritutakoen zerrenda bat egitea.* Hainbat taldekideren artean, taldeak dituen informazioa, ahalmenak eta prozedurak zehaztea.
- 4) *Arazoa konpontzeko ikasi beharrekoen zerrenda bat egitea.*
 - a) Arazoa konpontzeko jakin beharrekoari buruzko galderak egitea.
 - b) Aztertu beharreko alderdi kontzeptualak edo beste era batekoak.

- 5) *Arazoa definitzea*. Taldeak konpondu, sortu, erantzun, frogatu edo egiaztatu nahi duena argi azaltzen duen paragrafo bat egitea.
- 6) *Helburuak/asmok ezartzea*. Informazioa biltzeko eta aztertzeko prozesua bideratuko duten ikasketa ildoak zehaztea.

LANERAKO PLANA

- 7) *Lanerako plana diseinatzea*. Adierazitako helburuak/asmok abiapuntutzat hartuta, banaka, binaka edo taldean gauzatu beharreko ekintzak zehaztuko dituen lanerako plan bat diseinatzea, helburu gisa aurrez identifikatutako ikasketa beharrak asetzea izango duena.

IKASKETA AUTONOMOA (*Informazioa lortzea, ikastea, modu kooperatiboan ikasteko partekatzea*)

- 8) *Informazioa biltzea*. Taldeak, planari jarraituz, iturri egoki guztietan informazioa bilatuko du (irakasgaiei buruzko dokumentazioa, datu-baseak – dialnet, <http://dialnet.unirioja.es/>; scholar, <http://scholar.google.es/>–, elkarrizketen bidezko landa lana, eragina jasan duten erakundeen web orrialdeak, legeria, etab.), ikasketa prozesua osatzen duten ildoak garatzeko eta arazoa konpontzeko.
- 9) *Denen artean txosten bat egitea*. Honako atal hauek barne hartuko dituen txosten bat idatzi beharko dute:
 1. Sarrera
 2. Arazoa konpontzeko jarraitutako prozesua:
 - 2.1. Konponbidea azaltzea
 - 2.2. Konponbidea justifikatzea:
 - 2.2.1. Sortutako eta baztertutako hipotesiak, eta horretarako arrazoiak
 - 2.2.2. Aukeratutako hipotesia(k) eta aukeraketaren argudioak
 - 2.2.3. Kontsultatutako iturriak
 - 2.2.4. Proposatutako konponbidearen mugak
 3. Ikasitako alderdi teorikoak
 4. Ateratako ondorioak (gomendioak, inferentziak, iragarpenak, etab.)
 5. Ebaluazioa: Egindako lana eta jarraitutako prozesua (banakakoa eta taldekakoa) aztertzea, erreferentzia gisa adostutako ebaluazio adierazleak hartuta, eta indar guneak eta hobetu beharreko alderdiak azaleratuz.
 6. Erreferentziadun bibliografia eta web-grafia
 7. Eranskinak:
 - 7.1. Gauzatutako lanerako plana
 - 7.2. Gauzatutako prozesu osoaren aktak

Txostena aurkezteko baldintzak: dokumentua eta aurkibidea orrialdeak zehaztuta; letra mota: Times New Roman (12 p.), Arial (11 p.) edo Verdana (11 p.). APA7 erabili.

LABURPENA (*Emaitzak idatziz eta ahoz aurkeztea*)

- 10) *Txostena ahoz (eta idatziz) aurkeztea*. Garatutako prozesua eta arazoari emandako konponbidea txosten batean berreraikitzea, eta txostena mintegian ahoz aurkeztea. Txosten honek fase guztietan gertatutakoa bildu behar du eta hartutako erabakiak argudiatu behar ditu. Aurkezpena egiteko hainbat baliabide erabil daitezke (IKTak, bestelako hainbat teknika, etab.), eta ezarritako denbora errespetatu beharko da.
- 11) *Metakognizioa eta ezagutzaren transferentzia*.

1. Gure ikasteko modua zein den ezagutzea, prozesu osoan erabilitako ikasketa estrategiak adieraziz.
2. Ikasitako printzipioak, teoriak, estrategiak, etab. zehaztea.
3. Ikasitakoa beste egoera profesional batzuetan erabiltzea.

MDJren Ebaluazioa (prozesua, adierazleak, irizpideak eta nota)

Gaitasunen bidezko irakaskuntza-ikasketa planteamenduan, beharrezkoa da gogoraraztea gaitasunen balorazioa eta lan baten menperatze mailaren adierazleen balorazioa ezin direla modu independentean egin. Izan ere, gaitasun kontzeptua modu integratuan ulertzen dugu: gaitasuna zeregin konplexu bat konpontzeko prozesua da. Beraz, ez ditugu gaitasunak ebaluatu behar, ikasketa prozesuaren kalitatea eta ikasleek (taldeek) egoera edo arazo bat konpontzeko egindako produktuaren kalitatea baizik. Horretarako, informazio hori biltzea ahalbidetzen duten adierazleak erabiliko ditugu, ondoren horiek egiaztatzeko eta baloratzeko.

Azken finean, ebaluazioak **prestakuntzaren zati** izan behar duela uste dugu. Prozesuan zehar, bai ikasleek bai irakasleek (lankidetzan jardunez) adierazleak eta ebidentziak erabiliko dituzte lana nola gauzatu ikusteko. Era berean, ikasketen ahulguneak zehazteko eta horiek gainditzeko egin beharreko hausnarketa ezartzeko informazioa eskuratuko dugu. Modu horretan, ikasketak, ditugun zailtasunak eta horiei aurre egiteko moduak aztertuta, ikasketa prozesua indartuko dugu eta prestakuntza prozesu honetan funtsezkoak diren hainbat alderdi hautemango ditugu (horietako batzuk aurreikusitakoak).

Beraz, garrantzitsua da eskuratu nahi ditugun gaitasunen eta ikasketa emaitzen ebaluazio adierazleak denen artean lantzea. Hain zuzen ere, moduluko lehen asteko lan saio bat horretarako erabiliko dugu.

MDJ gauzatzeko saioen egiturak ekintza planaren diseinuaren eta arazoarentzako konponbidearen aurkezpenen artean prozesua aztertze eta analizatzeko une bat sartzea ahalbidetzen du, ikasketa indartzeko helburuarekin. Horrek prestakuntza prozesuaren segimendua egiteko aukera ematen digu, irakaskuntza-ikasketa prozesua berriro bideratzea ahalbidetuko digun informazio baliotsua biltzeko.

Hona hemen aipatutako adierazleak:

| | |
|------------------------------|--|
| Idatzizko adierazpena | <ol style="list-style-type: none"> 1. Baieztapen idatziak, marko teorikoetan oinarritzen ditu. 2. Ideien koherentzia eta kohesioa adierazten du. 3. Txostenaren aurkezpen egokia erakusten du (aurkibidea, orrialdeak, sarrera, garapena eta ondorioak). 4. Bibliografia eta oin-oharrak sistema estandarretan ematen ditu |
| Ahozko espresioa | <ol style="list-style-type: none"> 5. Azalpenetan ideiak modu logikoan ordenatuta eta egituratuta daude. 6. Ahozko erregistro egokia darabil, ahots tonu eta hitz egiteko era ulergarri eta argiaz baliaturik. (gorputz-hizkera egokiaz lagunduta) |

| | |
|-------------------------------------|--|
| Talde lana eta parte hartzea | 7. Zereginak eskatutako denboran betetzen ditu. 8. Ekipoan aktiboki parte hartzen du taldearen topaguneetan, informazioa, ezagutzak eta esperientziak partekatuz. |
| Heziketa-jarduera etikoa | 9. Azterketa eta ebazpen proposamena, Gizarte Hezkuntzarako jarduera-kodearen gako etikoetan oinarrituz egiten da. |

Erabiliko ditugun tresnak: Arazo bakoitzari buruzko txostenak; Auto-ebaluazioaren eta denen artean egindako ebaluazioaren txostena; Ahozko aurkezpena eta Behaketa ereduak.

Txostena TALDEKO KARPETA BIRTUAL batean aurkeztu beharko dute. Koaderno horrek honako atal hauek izango ditu:

Azalean: taldearen izena eta taldekide bakoitzaren izen abizenak

1. Lantaldearen aurkezpena
2. Arazo bakoitzaren txosten partzialak eta azken txostena
3. Ikasle bakoitzaren auto-ebaluazioa
4. Denen artean egindako ebaluazioa
5. Ahozko aurkezpenaren prestaketa eta ebaluazioa

Taldeko koaderno honen entrega data lehenengo lauhileko azken astean zehar izango da, baldin eta MDJ talde bakoitzeko tutoreak besterik zehazten ez badu.

Plagioa: ezin da beste norbaitek egindako lana, edo horren kopia edo imitazioa, norberarena izango balitz bezala aurkeztu. Ikasleak aipua egiteko arauakezagutu eta erabili beharko ditu. Plagioaren susmoak txostena ez onartzea suposa dezake, eta beraz, MDJ ez gaituzte.

Nota jartzeko sistema

Taldeko irakasle tutorearen ardura izango da MDJri nota jartzea; dena den, moduluko gainerako irakasleekin kontsultatu ahal izango du. Nahitaezkoa da MDJ egitea irakasgaien nota jasotzeko. Gidan zehaztutako urratsak errespetatzen dituzten MDJk bakarrik hartuko dira ontzat.

MDJk gehienez 1,5eko nota jasoko du. Nota hori irakasgaietan lortutakoei gehituko zaie.

Nota hori irakasgaiari gehitu ahal izateko, irakasgaiak gaituzte egon beharko dute. MDJ gaituzte ezean, irakasgaietan lortu ahal izango den gehienezko puntuazioa 8,5ekoa izango da.

Moduluko Diziplinarteko jarduera (MDJ) egiteaz salbuestea

1. Mugikortasun programetan parte hartzen ari diren ikasleek ez dute Moduluko Diziplinarteko Jarduera (MDJ) egin beharrik izango, modulu oso batean matrikulatuta dauden kasuetan izanez.
2. Gradu ikasleek MDJ egin beharko dute, baldin eta, gutxienez, modulu bateko hiru irakasgaietan matrikulatuta badaude. Gainerako kasuetan, ikasleek ez dute egin beharrik izango.
3. Aldi berean bi modulu egin behar dituzten ikasleek (irakasgai batzuk baliozkotuta edo gaituzte gabe dauzkatelako) irakasgai gehien egiteke

dituzten MDJ egin beharko dute soilik. Bi moduluetan egin beharreko irakasgai kopurua bera bada, goreneko mailako moduluan egingo dute MDJ.

- MDJ egin behar ez dutenen kasuan, irakasgaiaren nota 10etik emango da, MDJren % 15 aplikatu gabe.

MDJren ebaluazio jarraituari uko egitea

MDJren ebaluazio jarraituari uko egin beharko dion ikasleak ikasturteko lehenengo 9 asteetan barne lehen moduluko koordinatzaileari idatziz jakinarazi beharko dio.

Ikasle honek MDJ ebaluatzeko moduloko irakasle taldean adostutako banakako froga bat egin beharko du. Moduloko koordinatzaileak edo honek

IRAKASGAIEN ZERRENDA: Bakoitzaren konpetentzia espezifikoak eta edukiak

Irakasgai bakoitzaren metodologia eta ebaluazioa zehatzak GAUREn argitaratutako irakasgaien gidetan kontsulta daitezke.

1. DIDAKTIKA OROKORRA **Konpetentzia espezifikoak**

- Didaktikaren ezaugarriak eta lan eremuak analizatzea eta beste hezkuntza zientzietatik desberdintzea.
- Didaktikaren oinarri teorikoak ulertzea, irakaskuntza eta ikaskuntza prozesuen gainean zentzuz argudiatzeko.
- Irakaskuntza eta ikaskuntza prozesuen ezaugarriak ezagutu, hausnarketa kritikoak burutzeko.
- Irakaskuntza planifikatzeko oinarritzko atalak eta faseak ezagutzea eta balizko esparru praktikoen arabera aplikatzea.
- Balizko hezkuntza-arazoei irtenbideak aurkitzea, erabaki profesional eta argudiatuak hartuz.
- Jarduerak diseinatzeko orduan eta hezkuntza balizko arazoei irtenbideak bilatzean, jarrera sortzaile eta berritzaile erakustea.

Gai zerrenda

| | |
|---|--|
| 1. Didaktikaren oinarriak | Gai honetan, didaktikaren oinarritzko kontzeptuak zehaztuko eta interpretatuko ditugu. Kontzeptu horiek funtsezko tresna bihurtuko dira bai irakasgaien bai karrera osoan. |
| 2. Irakaskuntza eta ikasketa hezkuntzan | Gai honetan, irakaskuntza-ikasketa prozesuak didaktikaren funtsezko ardatz gisa aztertuko eta bereiziko ditugu. |
| 3. Gizarte eta hezkuntza arloko esku-hartzea: plangintza edo analisisa egiteko tresna | Gai honetan, gizarte eta hezkuntza arloko esku-hartzeak egituratzeko tresnak aztertuko eta interpretatuko ditugu, bai hezkuntza formalean bai gizarte hezkuntzan. |
| 4. Curriculumaren garapena - proiektuaren garapena: funtsezko elementuak | Gai honetan, gizarte eta hezkuntza plangintzarako tresnak osatzen dituzten elementu nagusien analisi teoriko eta praktikoa sakona egingo dugu. |

| | |
|----------------|--|
| 5. Ebaluazioa | Gai honetan, ebaluazioak programa eta gure esku-hartzea barne hartuko duen gizarte eta hezkuntza testuingurua hobetzeko tresna gisa duen garrantzia azpimarratzen dugu. |
| 6. Berrikuntza | Gai honetan, berrikuntzaren kontzeptua aztertuko dugu eta esku-hartzearen, ebaluazioaren eta berrikuntzaren arteko harreman teoriko eta praktikoa behatuko dugu, gizartearen eskarirako egokitzapena eta etengabeko hobekuntzadinamizatzeko. |

2. HEZKUNTZA ETA GIZARTE ORIENTAZIOA

Konpetentzia espezifikoak

| |
|---|
| 1. Planteamendu sistemiko batetik Orientazioaren printzipioak, funtzioak, jarduer-esparruak, eta erreferentziatzko eredu teorikoak identifikatu. |
| 2. Ikuspuntu kritiko batetik aztertu egoera hauek: kolektiboena, kokatzen diren testuinguruena, eta baita kolektibo hauei heziketa- eta gizarte-esparruan aplikatzen zaizkien orientabide eta esku-hartze programena ere. |
| 3. Kasu simulatuetan demonstratu hasierako mailan- jardunbide orientagarrirako beharrezkoak diren trebetasunak, hala nola: egoeren analisia, komunikazioa, lankidetzeta, taldeen kudeaketa, gatazkei aurre egitea, enpatia; eta baita jardunbide orientagarrirako oinarritzko baliabide eta tresnen erabilera: elkarrizketa, behaketa, kontrol erregistroak, erregistro-teknikak. |
| 4. Hezkuntza eta gizarte testuinguruetan orientabide eta esku-hartze proposamenak diseinatzen hasteko gai izan. |
| 5. Egindako jardunbideari buruzko prozesu gogoetatsu kritikoak eta autokritikoak ezartzeko gai izan, egoera jakin batean autonomoki jokatzeko aukera emango diotenak. |

Gai zerrenda

| | |
|---|---|
| I. Esparru kontzeptuala | |
| 1. Hezkuntza eta gizarte orientazioaren jatorria eta garapena | <ul style="list-style-type: none"> • Ikuspegi historikoa eta lege esparrua. • Orientazioaren printzipioak. • Orientazioaren funtzioak eta profil orientatzaileak. • Orientazioaren esparruak. • Mugaketa kontzeptuala, ikuspegi kritikotik begiratuta. |
| 2. Orientazio arloko jarduketara ereduak | <ul style="list-style-type: none"> • Ereduen bilakaera: eredu klinikoa, kontsulta eredu eta programen ereduak. • Ereduek praktikan jartzea: tresnen kutxa. • Beste profesional batzuekiko lankidetzeta: orientazioa lanbide anitzeko taldeetan. |
| II. Orientazioaren arloko profil pertsonala eta profesionala. Orientatzailearen trebetasunen eta gaitasunen garapena | |
| 3. Auto-estimua profesionala eta orientatzaile zereginak | <ul style="list-style-type: none"> • Auto-estimua pertsonaletik auto-estimua profesionalera. • Orientatzaile zereginetarako funtsezko elementuak: <ul style="list-style-type: none"> - Babesa eta kontrola - Eredu gisa jokatzea - Estimulazioa |
| 4. Orientatzaileen trebetasun, gaitasun | <ul style="list-style-type: none"> • Komunikazioa. • Gatazkak konpontzea: diziplina gatazkak eta |

| | |
|---|---|
| eta etika profesionalak pertsona arteko eta erakundeekiko harremanetan | <p>hezitzaileen arteko gatazkak.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Kideen arteko erasoak prebenitzea eta horiei aurre egitea. • Taldeak kudeatzeko gaitasunak (kohesioa, parte-hartzea, mugak, eskubideak eta erantzukizunak). • Oreka pertsonala eta inplikazio profesionala (orientaziorako tresnen erabilera etikoa: elkarrizketa, behaketa, programak; hausnarketarako gaiak). |
| III. Orientazioa gizarte eta hezkuntza esku-hartze prozesu gisa. Esku-hartze programak | |
| 5. Adingabeentzako orientazio eta esku-hartze programak, hezkuntza formalaren eta ez formalaren testuinguruan | <ul style="list-style-type: none"> • Orientazio eta esku-hartze programak hezkuntza formaleko zentroetan. • Orientazio eta esku-hartze programak hezkuntza ez formaleko zentroetan (ludotekak, tailerrak, gaztelekuak, museoak, gizarte etxeak, elkarteak, kanpamentuak, animazio soziokulturala). • Babesik gabe eta gizarte bazterketa egoeran dauden adingabeentzako orientazio eta esku-hartze programak |
| 6. Helduentzako orientazio pertsonalerako eta lan orientaziorako programak | <ul style="list-style-type: none"> • Bizitzan zehar ikasteko orientazio eta esku-hartze programak (HHE, arte eta kultura programak, etab.). • Familiei zuzendutako programak (guraso eskolak, adopzio familiak, banantze eta dibortzio egoeran dauden familiak, etab.). • Talde espezifikoen orientazio programak (emakumeak, etorkinak, presoak, drogazaleak, desgaituak, langabeak, etab.). |
| 7. Adinekoentzako hezkuntza orientazioa eta esku-hartzea | <ul style="list-style-type: none"> • Osasunaren arloko hezkuntza programak (osasun fisikoa, intelektuala, emozionala eta soziala). • Aisialdirako programak. • Bizitza osoko prestakuntza eta garapen programak. |

3. HEZKUNTZAREN PSIKOLOGIA

Konpetentzia espezifikoak

1. Gizarte-hezkuntzako prozesuen oinarri psikologiko eta psikopedagogikoak determinatzea (CG1, CG3).

Gai zerrenda

| | |
|--|--|
| 1. Hezkuntzaren psikologia | Hezkuntzaren psikologia diziplina zientifiko gisa. Hezkuntzaren psikologiaren ulermenaren eta definizioaren bilakaera. Hezkuntzaren psikologiaren helburua. |
| 2. Ikaskuntza | Kontzeptua eta ikasketaren teoriak. Teoriak praktikan aplikatzeko orientazioak eta iradokizunak. |
| 3. Hezkuntzarako motibazioa | Hezkuntzarako motibazioa. Teoria argitzaileak. Zerikusia duten faktore pertsonalak eta sozialak. Teoriak praktikan aplikatzeko orientazioak eta iradokizunak. |
| 4. Pertsonen arteko aldagaiak hezkuntzan | Hezitzailea eta hezituen itxaropenak eta irudikapenak: ikasketan duten eragina. Elkarrekintza, ikasketa eta hezkuntza/heziketa. Elkarrekintza hezitzaileen garrantzia. |

| | |
|--|---|
| 5. Pertsona barneko aldagaiak hezkuntzan | Autokontzeptua/autoestimua. Norberaren ezagutza, garapen pertsonala eta nortasuna. Garapen pertsonala sustatzeko orientazioak |
| 6. Etika eta hezkuntzaren psikologia | Etika psikoheziketa estrategien erabileran. Balioak, jarrerak eta etika profesionala. |

4. PROZESUEN, ZERBITZUEN ETA HEZKUNTZA ERAKUNDEEN ANTOLAKUNTZA ETA KUDEAKETA

Konpetentzia espezifikoak

1. Hezkuntza arloko testuinguru eta erakundeak analizatzea, hezkuntza-prozesuetan parte hartzen duten heinean, eta ezagutza teorikoaren esparruan interpretatzeko helburuarekin.
2. Erakunde gizarte hezitzaileen egitura eta dinamikak interpretatzea eta prozesu hezitzaileetan eta gizakiaren garapenean duten eragina baloratzea.
3. Hezkuntza Erakunde baten zereginak gauzatzeko tresnak erabiltzea eta sortzen diren arazoak ebaztea.
4. Hezkuntza Erakundearen ebaluazioa hobekuntza tresna gisa ulertzea eta erabiltzea.
5. Hezkuntza Erakundearen inguruandauden informazioiturrak era kritikoan erabiltzea.

Gai zerrenda

| | |
|---|--|
| 1. Hezkuntzako erakundeak gure gizartean | Gizarte eta Hezkuntza erakundearen definizioa eta ezaugarriak |
| 2. Erakundearen Proiektuak | Erakundearen agiri instituzionalen analisia. |
| 3. Antolaketarako egitura eta dinamikak | Giza baliabideak, materialak, ekonomikoak, funtzionalak. Egitura. |
| 4. Harremanetarako sistema gizarte eta hezkuntzako erakundeetan | Erakundearen kanpoko eta barruko harremanekin loturiko gaitasunen garapena. |
| 5. Zuzendaritza eta kudeaketa prozesuak | Zuzendaritza eta kudeaketa prozedurak. Erakundearen lidergoa. |
| 6. Giroa, kultura eta gatazka erakundeetan | Erakundearen giroan, kulturen eta gatazkan eragiten duten faktoreen azterketa. |

5. GIZARATERATZE ETA BAZTERTZE PROZESUAK

Konpetentzia espezifikoak

1. Ongizate Estatuaren oinarrian dauden funtsa kontzeptualak identifikatzea
2. Ongizate kapitalismoaren gizarteetan dauden erregimenak motak bereizten jakitea
3. Eraldaketa ekonomikoekin(berregituratze ekonomikoa eta globalizazioa) eta gizarte kapitalista aurreratuen Ongizate Estatuarekin harremanetan Gizarte desberdintasunak hartzen dituen modu berriak(polarizazioa eta dualizazioa) identifikatzen jakitea
4. Desberdintasuna, pobrezia, marginazioa eta gizarte bazterketa kontzeptuak bereiztea
5. Bizitza zikloen eta gizarte zaurgarritasun egoeren araberrako bazterketa ibilbideak ulertzea
6. Gizarteratzeraz zuzendutako, batik bat hezkuntza politiketan eta proposamenetan, praktika onak identifikatzea eta deskribatzea.

Gai zerrenda

| | |
|---|---|
| 1. Berregituraketa ekonomikoa, globalizazioa eta ongizatearen estatua | Ongizatearen estatuaren krisia. Globalizazio ekonomikoak lan merkatuan, gizarte egituran eta gizarte desberdintasunean, pobrezian eta gizarte bazterketan izan dituen ondorioak. Gizarteko dualizazio eta polarizazio prozesuak. |
| 2. Gizarte desberdintasuna: kontzeptua, esparruak eta motak | Gizarte desberdintasuna, bizi baldintzen ikuspegitik: lan egoera, eskolatze maila, familia osaera, osasun egoera, aisialdia, gizarte harremanak, etxebizitza, gizarte ingurunea eta ingurune fisikoa, etab. Genero desberdintasuna. |
| 3. Pobrezia, marjinazioa, gizarteratzea eta bazterketa: kontzeptua eta desberdintasunak | Gizarte bazterketaren dimentsio aniztasuna. Etxerik gabeak. |
| 4. Gizarteratze eta bazterketa kontzeptuetarako hurbilketa teorikoak | Bazterketaren paradigma. Gizarte bazterketari buruzko ikuspegi teorikoak. |
| 5. Baztertutako taldeen gizarteratzea | Txertaketako Errenta Minimoak. Euskadiko, Espainiako eta Europar Batasuneko pobrezia-aurkako programak. Pobrezia-aurkako programen ebaluazioa. Jardunbide egokiak. |

WEB ORRIETARA ETA ALDIZKARIETARA ESTEKAK

Web Orriak

Modulu osoan zehar, honako web orrialde hauek erabil daitezke erreferentzia komun gisa.

Gizarte Hezkuntzaren ataria: <http://www.eduso.net>. Weborrialde hau oso interesgarria da, izan ere, gizarte hezkuntzari buruzko mota askotako informazioa barne hartzen du (1.700 esteka baino gehiago ditu). Gizarte hezitzaileen elkargoetako web orrialdeetarako eta RES aldizkarirako sarbidea eskaintzen du. Horrez gain, gizarte hezkuntzako dokumentu profesionalizatzaileak eskura daitezke bertan:

ASEDES eta Hezitzaileen Elkargoen Kontseilu Nagusia. (2007). *Documentos profesionalizadores: Definición de Educación Social. Código deontológico del educador y educadora social. Catálogo de funciones y Competencias del educador y educadora social*. BARTZELONA: ASEDES.

Gizarte Hezitzaileen Euskadiko Elkargoa: <http://www.ceespv.org/web/index.php>

Amnistia Internazionala: <http://www.es.amnesty.org/index.php>. Kataluniako Amnistia Internazionalaren web orrialdea, giza eskubideen historia eta bestelako dokumentu, proposamen, definizio, etab. oso interesgarriak barne hartzen dituena (<http://www.amnistiacatalunya.org/edu/es/historia/index.html>).

Ararteko, herriarendefendatzailea: www.ararteko.net. Pertsonen etabaztertze arriskuan dauden taldeei buruzko txostenak, dokumentuak eta artikuluak biltzen ditu.

Asociación de Enseñantes con Gitanos: <http://www.pangea.org/aecgit/>

OEIren liburutegi digitala: <http://www.oei.es/bibliotecadigital.htm>

Gizarte hezkuntzari buruzko bloga: <http://www.educablog.es/category/diario-de-un-educador/>

Estatutako Aldizkari Ofiziala: www.boe.es

Centro de Documentación de Alternativas Pedagógicas:

<http://www.nodo50.org/cdc/cedap/CEDAP.htm>

Centro de Recursos Documentales e Informáticos (CREDI):

<http://www.campus-oei.org/formcredi.htm>

Comunidad de Educación No Formal: <http://educalia.educared.net/edujsp/home.jsp?idioma=es>

Ikas Komunitateak: http://www.utopiadream.info/red/tiki-index.php?page_ref_id=26

Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila: www.gizartelan.ejgv.euskadi.net

Giza eskubideei buruzko nazioarteko zuzenbidea: <http://www.derechos.org/nizkor/ley/>. Era guztietako erreferentziak eta estekak (auzitegiak, instantziak, etab.): <http://www.derechos.net/links/esp/ley/>, <http://www.derechos.org/index/esp.html>.

Bizkaiko Foru Aldundia: www.bizkaia.net

Eusko Jaurlaritzaren Gizarte Zerbitzuetako Erakunde eta Zentroen Direktorioa: www.direktorioa.net

SUSMOA Federakundea (Garapen komunitarioa Bilbon): <http://susmoa.wordpress.com/>. Osatzen duten lau erakundeetarako sarbidea.

Fundació Pere Tarrés: <http://www.peretarres.org/>. Web orrialde honetan aldizkariak eta argitalpenak aurki daitezke, katalanez eta gaztelaniaz.

Fundación Ruy López: <http://www.fundacionruylopez.org/>

Instituto de Derechos Humanos Bartolomé de las Casas. Karlos III.a Unibertsitatea:

http://www.uc3m.es/portal/page/portal/instituto_derechos_humanos

Hezkuntza eta Zientzia Ministerioa: <http://www.mec.es>

MUGAK, arrazakeriari eta xenofobiari buruzko SOS Arrazakeriaren ikasketa eta dokumentazio zentroa: <http://www.mugak.eu/gunea/mujer/asilo/1951>. Web mapa oso interesgarria da, baliabide, esteka, ikus-entzunezko dokumentu, eztabaida proposamen, etab. ugari barne hartzen baititu (<http://www.mugak.eu/mugak/site-map>).

Observatorio de Ética Aplicada a la Intervención Social: www.etica.campusarnau.org

Organización De Estados Iberoamericanos para la Educación, la Ciencia y la Cultura:

<http://oei.es>. Orrialde honek beste hauetarako sarbidea eskaintzen du:

Eusko Jaurlaritzaren hezkuntza ataria (Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila): www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net

INNOVA proiektua. Hezitzaileen ataria. Hezkuntza berrikuntza: innova.usal.es

Red de Educadores y Educadoras Latinoamericanos:

<http://www.edusol.info/es/bitacora/irisfz/red-educadores-latinoamericanos-200-integrantes>.

Hainbat herrialdeetako 200 hezitzaile baino gehiagok osatzen dute, eta beren helburua esperientziak partekatzea eta trukatzeko da.

Red Iberoamericana de Animación Sociocultural: <http://rianimacion.org>. Helbide honek esparru honetan lan egiten duten ia ehun entitate eta erakundetarako sarbidea ematen du, baita sareko aldizkarietarako sarbidea ere:

Unesco: <http://www.unesco.org/new/es/unesco/>. Unesco eta hezkuntzaren arloko tresna arauemaileak: <http://www.unesco.org/new/es/education/standards-and-norms/>

Unicef: www.unicef.es

Aldizkariak

- ANIMADOR SOCIOCULTURAL: REVISTA IBEROAMERICANA: http://www.lazer.eefd.ufrj.br/animador_sociocultural/
- AULA DE INNOVACIÓN EDUCATIVA: <http://aula.grao.com/revistas/presentacion.asp?ID=3>
- INVESTIGACIÓN-ACCIÓN. BOLETÍN DE INVESTIGACIÓN:

- REVISTA ELECTRÓNICA SOBRE DERECHOS HUMANOS Y DERECHO HUMANITARIO: <http://www.derechos.org/koaga/>
- REVISTA IBEROAMERICANA DE EDUCACIÓN: <http://www.rieoei.org/>
- REVISTA IBEROAMERICANA DE EDUCACIÓN (bertsio digitala eta inprimatua): <http://www.rieoei.org>

| | |
|--|--|
| <p>http://www.peretarres.org/investigacion/index.html.</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ COMUNICAR (on line bertsioa eta bertsio digitala): http://www.revistacomunicar.com/ ▪ COMUNICACIÓN Y EDUCACIÓN • CONTEXTOS EDUCATIVOS: http://www.unirioja.es/servicios/sp/ej/contextos/contextos.shtml • CUADERNOS DE PEDAGOGÍA: http://www.cuadernosdepedagogia.com/ • CULTURA Y EDUCACIÓN: http://www.fia.es/online/revistas_home.php • EL CORREO DE LA UNESCO • HIK HASI hezkuntza aldizkaria. Euskal hezkuntzari buruzko aldizkaria: www.hikhasi.com • INFANCIA Y APRENDIZAJE: http://www.fia.es/online/framehomepage.php • MONITOR EDUCADOR: http://www.monitoreducador.org/ ▪ PEDAGOGÍA SOCIAL: http://www.uned.es/pedagogiasocial.revistainteruniversitaria/ ▪ PROFESORADO. REVISTA DE CURRÍCULO Y FORMACIÓN DE PROFESORADO: http://www.ugr.es/local/recfpro • QURRICULUM: http://webpages.ull.es/users/revistaq/. Dokumentuak hemen: http://www.quadernsdigitals.net/index.php?accionMenu=hemeroteca.VisualizaNumeroRevistaIU.visualiza • REME. Revista Electrónica de Motivación y Emoción: http://reme.uji.es/ • Red Digital. Revista de Tecnologías de la Información y Comunicación Educativas: http://reddigital.cnice.mec.es/6/Portada/portada.php ▪ RES: http://www.eduso.net/res/ ▪ REVISTA DE EDUCACIÓN: http://www.revistaeducacion.mec.es/ | <ul style="list-style-type: none"> ▪ REVISTA IBEROAMERICANA DE EVALUACIÓN EDUCATIVA: http://www.rinace.net/riee/ ▪ REVISTA INTERUNIVERSITARIA DE FORMACIÓN DEL PROFESORADO (bertsio inprimatua eta digitala): http://aufop.com/aufop/revistas/lista • REVISTA DE EDUCACIÓN SOCIAL: http://www.peretarres.org/revistaeducacion-social/. • REVISTA EDUCACIÓN XX1: http://www.uned.es/educacionXX1/ • REVUE GÉNÉRALE DE DROIT INTERNATIONAL PUBLIQUE: http://www.rgdip.com/ • REVISTA ESPAÑOLA DE DERECHO INTERNACIONAL: http://www.aepdiri.org/publicaciones/redi-informacion.php • REVISTA ELECTRÓNICA DE HUMANIDADES, EDUCACIÓN Y COMUNICACIÓN SOCIAL: http://www.publicaciones.urbe.edu/index.php/REDHECS • REVISTA MEDITERRÁNEA DE COMUNICACIÓN SOCIAL: http://www.rmedcom.org/ • RIE. Revista de Investigación Educativa: http://www.um.es/depmed/RIE/ • TANTAK. Euskal Herriko Unibertsitateko hezkuntza aldizkaria: http://www.argitalpenak.ehu.es/p291-home/es • TRABAJO SOCIAL GLOBAL: www.tsghipatiaeditorial.com/ • “HEMEROTECA VIRTUAL DE SUMARIOS DE REVISTAS CIENTÍFICAS”: http://dialnet.unirioja.es • Instituto de Derechos Humanos Bartolomé de las Casas institutuko Revista Derechos y Libertades “Revista Derechos y Libertades del Instituto de DDHH Bartolomé de las Casas” delakoaren aurkibideak: http://turan.uc3m.es/uc3m/inst/BC/dpbcc02.html. • Aldizkarien ataria: http://www.quadernsdigitals.net/index.php?accionMenu=hemeroteca.ArticuloIU.getList&filtro_categorias=6 |
|--|--|